


Antxiñako fotografixak



Bujero tabernia botaten

Ondo famaia izan zan, ba, taberna-jatetxe-ostatu hau Oñatin XX. gizaldixaren lehenengo erdialdixan! Etzan hori bere izen ofiziala. **Fonda del Comercio** moduan ezagutu euen gerra aurrian, eta **Bar Restaurante Izarra** lez gerra ostian. Baiña gure aurrekuak eta guk geuk be **Bujero** esaten gotsan. Juanito Zubiaren memorixen liburuan datorren bertsioiak hau dixo: taberna horretan eguen joko batian txapa baten iriztuetatik txanponak sartu bihar izaten ziran, hau da, zulo edo “bujeruetatik”; ixa danontzat ezaguna dan “txantxiku-jokuaren” tankerakua ei zan jolas hori. Dana dala, beste bertsio batzuk be entzun izan dittugu.

Bujeron tertulixa eta frittada asko egitten ziran. Sarrittan etxetik eruandako kazuelatxo edo fianbriaren inguruan. Txantxikuar peto ugarik ez ezik kanpotarrak be joten euen hara: gehixenak beheko tabernara; kanpuan, sei postetzarren peian bi zatittan luzaketan zan harrizko bankuan be bezeruak patxadan egoten ziran; aterpe horren gaiñeko pisuan komedore-jangela luzia eguen bazkari eta afari formalaguak egitteko. Gerra aurretik **Hermenegildo Bergarajauregik** eta bere alaba **Danielak** eruan euen negoziua; gerra ondoren, **Faustino Inza Txaiña** eta **Liborio Lizarralde Uztargiñena** izan ziran arduradunak. Euren emazte eta neskamiekin batera, jakiña.

Bi argazki honeik erakusten doskue zelako itxuria eukan **Bujerok** bota baiño lehentxuago eta eresten ziharduain momentuan. Bigarrenian aittatutako aterpe haretatik geraketan zan poste bakarra eta goiko komedoriaren paretako papela ikusi geinke. Fotografixia 1961eko ilbaltzaren 12 xan atarata dago. Lanai begira dagozen lagunetatik bakarra ezagutu dogu: **Karlos Aranburu** aguzilla, Santa Kataliñakua. Zazpibidetako etxe horretara **Banco Vizcaya** aldatu zan Txurrukaneko arkupetatik, eta sigla gehitxuagokin hortxe jarraiketam dau berrogeta hamalau urte geruago be.

J. E.

Eresketia agerketan dauen fotografixia Nikolas Ugartek itzittakua da. Bestia Juanito Zubiaren *Memorias de aquel Oñati* liburutik hartu dogu eta Jose Luis Plazaolak ataratakua izan leike. Milagros eta Rexu Letamendik argibide batzuk emun doskue. Eskerrik asko danoiri.